



Jaámon, jaámona: *iz.* Jaramona./ *Jaa-monik eñ.* Jaramonik egin. (JBA, 1998-07-06)/ *Jámonik eman ez.* Jaramonik eman ez. (JBA, 2007-05-12)/ *Ez gendun jámonik eitten.* Ez genuen jaramonik egiten. (JBA, 2008-10-31)/ (aldeaera **Jamon**)

Jaatsi: (ik. **Jaitsi**, bi adierak)

Jábe, jabéa: *iz.* Jabea.

JABE IN: *ad.* Jabe egin, jabetu./ *Etxe orren jabe in tzien.* Etxe horren jabe egin ziren. (JUA, 2000-12-16)



› **JABOIA.** Xaboa. (AA, 2008-12-07)

Jaboi, jaboia: *iz.* Xaboa./ *Jaboia.* Xaboa. (JBA, 2003-03-21)

Jabóndu: *ad.* Xaboitzen, xaboa ematen./ *Erropak jabondutzen... jabonduta.* Arropak xaboitzen... xaboituta. (JBA, 2000-08-09)

Jai, jaie: **1.** *iz.* Jaia, igandea./ *Jaiti.* Jaitik, (Igandetik) (JBA, 1999-11-21)/ *Jaie gaue lanea juten da.* Jai gauean lanera joaten da. (JBA, 2007-10-26)/ *Jaien Berriza gijotz.* Jaiaren Berriza goaz. (JBA, 2008-01-18)/ (sinonimoa **Jaieun**) **2.** *iz.* Jaia, festa./ *Donostiko jaiek die-ta.* Donostiako jaiak dira-eta. (JBA, 2004-08-09)/ (sinonimoa **Festa**)

Jaieun, jaieune: *iz. Erl.* Jaieguna./ (sinonimoa **Jai**, lehen adiera)

• *Emog.* **Igandea:** Asteko jai eguna igandea izaten zen. Egun honetan lana egitea debekatua egon ohi zen. Lana egin behar izan ezkerro, bi orduko lana bakarrik egin ahal zite-

keen eta hau apaizaren baimenaz: *Jaieunez bi ordu.* Gaur egun berriz, lan egitea nahi izan ezkerro ez dago inori baimena eskatu beharrik eta hori JUA-rentzako *atzeraka* egitea omen da. (JUA, 2002-01-12)

Jaiki: **1.** *ad.* Jaiki./ *Jaiki.* Jaiki. (JBA, 1998-09-12)/ *Ez al don jaiki bear.* Ez al duen jaiki behar. (JBA, 1999-04-17)/ *Jaiki in bear ziela.* Jaiki egin behar ziteala. (JBA, 2000-12-31)/ *Jaiki balitz.* Jaiki balitz. (Ardia) (JBA, 2005-02-19)/ **2.** *ad.* Jaiki, ogia harrotu./ *Jaikitzen.* Jaikitzen. (JBA, 1998-08-06)/ **3.** *ad.* Jaiki, hegaratu./ *Eunduko buitire pillea jaiki men da.* Egundoko putre piloa jaiki omen da. (*Irristara* bat eginda *amil-duta* zen moxala jatera joanda) (JBA, 2004-05-15)

Jaio: *ad.* Jaio./ *Beiri or jaiotakoa.* Berori hor jaiotakoa. (JBA, 2004-03-21)/ *Jaiotzen.* Jaiotzen. (JUA, 2004-08-10)

• *Emog.* **Jaiotza oparia:** JBA-k bere lehen umea izatean, Manuela Barrena amandrea *saski baten oilloa artuta* etorri zitzaion. (JBA, 2005-08-18)/ Berarentzako birbiloba zen umeari ekain horretan eman zion salda magalean, eta urte hartako urrian hil zen amandrea. (JBA, 2008-12-21)

Jaiotetxe, jaiotetxea: *iz.* Jaiotetxea./ *Jaiotetxea.* Jaiotetxea. (JUA, 2003-06-28)

Jaitsi: **1.** *ad.* Jaitsi./ *Jaitsi.* Jaitsi. (JBA, 1998-10-17)/ *Sorora jaitsi.* Sorora jaitsi. (JUA, 2001-12-15)/ (aldaerak **Jaatsi; Jetsi**) **2.** *ad.* Jetzi, esnea jetzi./ *Ardi mordoia jaisteko.* Ardi mordoia jezteko. (JBA, 2000-06-17)/ *Ardik jetsitzeko.* Ardiak jezteko. (JUA, 2000-12-02)/ (aldaerak **Jaatsi; Jetsi**)

Jaitsialdi, jaitsialdie: *iz.* Jetzialdia./ *Jaitsialdi oikin.* Jetzialdi horiekin. (Ardien gainean) (JBA, 2005-04-30)



› **JAKIE.** Postrea. (AA, 2008-08-31)

JAKI

Jáki, jákie: *iz.* Jakia./ *Jaki.* Jaki. (Zizen gainean esanda) (JBA, 2002-08-25) (sinonimoak **Jan**, izena; **Jan-gauza**)

Jákin: *ad.* Jakin./ *Jakiñ ez.* Jakin ez. (JBA, 1999-02-09) *Jakiñ dirue bear dona.* Jakin dirua behar duena. (JBA, 2005-08-18) *Jo-akiñek baleki.* Joakinek baleki. (JBA, 2008-03-13) (aldaera **Jakiñ**)

JAKIÑEN GAIÑEN EON: *ad.* Jakinaren gainean egon, gauza bat aldeztetik jakitea./ *Jakiñen gaiñen eon.* Jakinaren gainean egon. (MUA, 2003-04-11) *Jakiñen zendetelakon.* Jakinean zeundetelakoan. (Berria bazekitela uste zuen) (JBA, 2000-02-05)

Jakingarri, jakingarrie: *iz./izond.* Jakingarria./ *Jakingarrik.* Jakingarriak. (Gauza interesgarriak jakiteko) (JBA, 2001-12-29) *Oso jakingarrik dauzke gauzak.* Oso jakingarriak dauzka gauzak. (Alizkari batek) (JBA, 2005-06-18)

Jakintsu, jakintsue: *iz./izond.* Jakintsua./ *Jakintsu batek.* Jakintsu batek. (JUA, 2000-07-22) *Pastaingo Tomas kontularie eta jakintsue zen.* (JBA, 2004-12-04)

Jákiñ: (ik. **Jakin**)

Jákiñ, jákiñe: *izond.* Jakina./ *Persona jakikiñek.* Pertsona jakinak. (JBA, 2000-08-09) *Eun jákiñetan.* Egun jakinetan. (JBA, 2002-09-14)

Jakiñe: *adb.* Jakina./ *Jakiñe, puskau in zion-da.* Jakina, puskatu egin zion-eta. (JBA, 1999-04-17) *Eta jakiñe...* Eta jakina... (JBA, 1999-11-21) *Jakiñe ba!* Jakina ba! (JBA, 2001-06-30) *Jakiñe.* Jakina. (MUA, 2003-04-11)

Jále, jálea: *iz.* Jalea, jatuna./ *Jale aundin-dako.* Jale handientzako. (JBA, 2001-11-02) *Jale aundie zian.* Jale handia zuan. (JUA, 2004-08-11)

Jálki: *ad.* Nekaz. Jalki, alea edo hazia landaretik askatzea./ *Induaba jalkitzen.* Indiaba jalkitzen. (JBA, 2000-11-04) *Garia gehiegi heltzen denean eta ez bada ebakitzen, jalki egiten da.* (JUA, 2003-07-12) *Jalkita.* Jalkita. (Baratzuri buruak baratzuritik aletzea) (JBA, 2008-03-29) (sinonimoa **Jaulki**)

Jámon, jámona: (ik. **Jaamon**)

Jan: **I.** *ad.* Jan./ *Jan da jolas!* Jan eta jolas! (Zer egiten duen galdetuta) (JUA, 2004-01-17) *Jan ondo itten do.* Jan ondo egiten du.



► **JANA.** Indaba zen garai bateko jaki arruntenetakoa. (AA, 2006-11-04)

(Hau da, asko jaten duela) (JUA, 1999-08-08) *Jatea dauke.* Jatea dauka. (JBA, 1999-08-12) *Ez tait jan 'e inda.* Ez dakit jan ere eginda. (JBA, 2004-03-27) *Zuek ez dezue jango grasa zeaik.* Zuek ez duzue jango koipe zerarik. (JBA, 2004-04-17) *Bai, jan ez det eingo.* Bai, jan ez dut egingo. (Eskutan hartu duen gauza kontuz erabiliko duela adieraziz) (JUA, 2004-07-03) *Kutxárekin jaizu.* Koilararekin jan ezazu. (JBA, 2004-08-14) *Janez.* Janez. (JBA, 2004-12-04) *Aitorrek jaten ez!* Aitorrek jaten ez! (Aitorrek ez duela jaten adieraziz) (JBA, 2005-01-08) *Janik izango ditala dana.* Janik izango dudala dena. (JBA, 2005-08-13) *Beti ez jan nai-ta ibiltzen da.* Beti ez jan nahi-eta ibiltzen da. (JBA, 2005-08-18) *Daneti jan zeiken.* Denetik jan zezakeen. (JBA, 2007-12-02) *Ok dare jan bearren.* Hauek daude jan beharrean. (Fruituci buruz) (JBA, 2008-09-26) *Orrek jan in bear do.* Horrek jan egin behar du. (Hildako oilaskoa jateaz) (JUA, 2003-12-20) **2.** *ad.* Jan, irudizko adieretan. Batez ere gastatu edo desagerrarazi moduan erabilia./ *Jan.* Jan. (Eguzkiak izotza jan duela adierazteko, hau da, eguzkiak botatako izotza urtu egin duela) (JBA, 2002-01-06) *Erdik o geiao jango zion.* Erdiak edo gehiago jango zion. (Kostako zitzaion diruaren gainean esana. Norbaitek edo zerbaitek dirua edo jabegoak gastatu araztea adieran esana) (JBA, 2000-10-07)

JANDA EON: *ad.* Asetuta egotea./ *Jan-jan inda eongo a.* Jan-jan eginda egongo da. (Gizen samarra dagoen katu baten gainean) (JBA, 2005-05-07) *Naikoa janda darella.* Nahikoa janda daudela. (Katuei buruz ari da) (JBA, 1998-10-31)

Jan, jána: *iz.* Jana, janaria./ *Bee jana besteik ez do jaten.* Bere jana besterik ez du jaten. (Katu baten gainean esana) (JBA, 2001-08-11) *Jan pixkat.* Janari pixka bat. (JBA, 1999-08-08) *Jan-eranak.* Jan-edanak. (JUA, 2001-06-30) *Jan edanetan.* Jan edanetan. (JBA, 2004-01-04) *Jana bear zola.* Jana behar zuela. (JUA, 2004-08-10) *Jan garbie.* Jan garbia. (Barazki ugari eta koipe gutxiko elikadura adierazteko) (JBA, 2007-12-25) (sinonimoa **Jaki**; **Jan-gauza**)

► **Grab. Jan ohiturak:** “*Ordun eunero induabea, eunero induabea. Oin bezela, beno, ordun-da, induaba zopea, jenealen, azea're ipinte genduan. Da, naiko induabea jan, aza pixkaat naastu... Induaben saldekin zopea eñ, ta bizi, bizi... Urdai pixkaat, olako tajadatxo bat urdaie, txerri bat iltzen tzian. Guk'e, guk txerri ona beti. "Ciento noventa kilos", "ciento noventa", "ciento ochenta y cinco"... "Ciento ochenta"-ti berako txerrik ez diat nik ezautu. Bai, "ciento noventa", "doscientos"-eako kilo bat faltan, ori zea in zian, neurtu o pixau itten genduztan-da...". Hil eta gero pisatzen ziren: "Bai, odola kendu ta gero, ta... Geo, (...) beti, nik ezautu diat beti, ardi bat, eo bi're bai, iltzen genduztan. Bai, ardi bat, bat beintzat seguro eta bi're bai. Aitte oso ardizalea zian, ardikizalea, neu're bai. Ardikie, oso gustoa". Harategira tarteka joaten ziren: "Ordun'e, garai baten, libra bat aragi, saldea eitteko. Gu mutikok giñen eta gerogo're bai. Libra bat aragi, saldea eitteko". Ze haragi zen: "Zeona. Jenealen*

txalana, txalana. Ona etortzen zaen karnizeroa. Beienik etzian ona ekartzen. Oik dana saltzeko eukitzen zien. Da ni Zumarrako eskolan ibili nitzenen ekarte nian andik, ra!, karnazeria jun da libra bat aragi. Bularrekoa, nee amanrek esaten tzian, bularrekoa, petxukoa. Saldea itteko-ta. Etxen indako ogie, goseik ez genduan eukitzen, naikoa ogie, etxen indakoa...". Garia ez zen urte osorako: "Buena, etzian aileatzen urterako laiñ etxen artzen tzian gariikiñ. Zakun bat 'e, laroi kiloko iriñe ero ola, iriñ fiñe ekartzen tzian. Ia batekiñ, arekiñ ia, bi geiao, iru, labesue-o, illabete-ako garie-ero. Etzian enpeiñau 're itten 'e... Gero garii danai utzi gendioan, gu bezela bestek 'e...". Garia bertakoa noski: "Garie? Bertakoa. Aurten artzen tzana, "semiente", utzi, da geo kanbiau 're itten tzian beste Arabakoa 're bai ola, baten batek ola ekarrita. Gero arek 'e urregio urten ein da gero andi, etxe artati kanbiau ta ola ebilte giñean. Beti bertakoa 're, baiño pixkat kanbiatzea nai izaten zian, bai "semientek", garik...". Gari erusiara ere erabili izan zen: "Ibili zian garai baten, ori're. Bai, ruso-garie. Bai, ori're etorri zian-da, ori ealtze genduan. (...) zian jatekon (...) alea faltea etzekon gainea-ero, da errota eaman da io, geo etxei utzi gendium garaien, gero 're garia alea-o erosi, errota eman, io-da. Gero berriz 'e ebilte giñean, garie, zea, iriñe eosi da laasue eñ. Ala aizkenen (...) illabete baten eo ola, panadero, panadero eosi-o, olaxe nolabait 'e, olaxe". Errotak: "Elorriko errota ebalte genduan guk. Amen 'e errotea, onek 'e ondio, geroo 're, artoa ta garie iotzen tzian. Bai. Guk jenealen, Elorriko errotea. Elorriko errota iriñe obexoa-o itten te zan. Emen 'e artan zea geixero... Guk Elorriko errota in bilte giñean". Artoa ere bai: "Baita, bi beaje baten, jenealen gurdikiñ ibiltze giñean-da. Ona 're batzutan eamaten tzian, bai karretillan-eo, garie ero artoa igual-da. Gero artalea ematen asi giñean-da, gero berriz garie, garii batez ta artoa 're gutxi, da ola. Da laesue itteko iriñe ekarri, etxen labesue ein nai zuen garaien. Ointxen nola itten diek etxen zea, iriñ pixkat ekarri ta laben. Ola nolabait 'e, olaxe ba. Ola nolabait 'e" (JUA, 2003-03-01)

Jan-gauza, jan-gauzea: *iz.* Jan gauza, jakia./ *Jan-gauzak.* Jan gauzak. (JBA, 2007-12-15) (sinonimoak **Jaki**; **Jan**, izena)

Janáldi, janáldie: *iz.* Janaldia./ *Janaldie.* Janaldia. (JUA, 1998-08-01) *Janaldi aundiik.* Janaldi handiak. (JBA, 2008-08-21)

Jangoiko, jangoikoa: *interj.* Jaungoikoa, harridura adierazteko esaten da./ *Jan-goikoa, ze gaitze!* Jaungoikoa, ze gaitza! (JBA, 2006-01-07)

Jantxákur, jantxákurre: *iz.* Jantxakurra. Etxea zaindu beharrean, jan besterik egiten ez duen txakurra./ *Jantxákurre.* Jantxakurra. (Elena UB, 1999-04-12)

Jántzi: *ad.* Jantzi./ *Ondo jantzita.* Ondo jantzia. (Arropa oso dotorekin) (JBA, 2005-03-26)

JANTZI-JANTZI IN: *ad.* Jantzi-jantzi egin, ongi jantzi./ *Jantzi jantzi in.* Jantzi-jantzi egin. (Eguraldia hotza delako ongi jantzi behar dela adieraziz) (JBA, 2000-11-11)

Jaóndo: *Topo.* Jandoain, Brinkolako sarroia./ *Jaondon.* Jandoainen. (JUA, 1999-08-29)

Jardiñ, jardiñe: *iz.* Lorategia./ *Jardiñera.* Lorategira. (JUA, 1999-08-23)

Jardiñero, jardiñeroa: *iz.* Lorezaina./ *Jardiñerona.* Lorezainarena. (JBA, 2005-04-16)

Járdun: *1. ad.* Jardun, aritu./ *Esaten jardun zoon.* Esaten jardun zuen. (JBA, 1998-08-10)/ *Ala're jardun in nai zuen.* Hala ere jardun egin nahi zuten. (Lan bati buruz) (JBA, 2002-12-28)/ *Jarduten ziñenan esaten.* Jardun zitenan esaten. (JBA, 1998-11-14)/ *Ze itten jardun dezue? Zer egiten jardun duzue?* (JUA, 2004-04-17)/ *Jardun non.* Jardun nuen. (JBA, 2004-05-01)/ *Gau guzin jarduten bado're oi ez da kansauko.* Gau guztian jarduten badu ere hori ez da nekatuko. (Txakurra igurtziak jasotzeaz) (JBA, 2005-02-19)/ *2. ad.* Jardun, esan./ *Atzo're jardun nion ola.* Atzo ere jardun nion horrela. (Txakurrari emandako agindu batzuen gainean) (JBA, 1999-12-30)/ *Beñi'ola jardun nion.* Behin horrela jardun nion. (Horrela mintzatu zitzaiola adieraziz) (JUA, 2000-10-21)/ *Min daukela jardun din.* Min daukala jardun din. (JBA, 2004-01-04)

Járdun, jardúne: *iz.* Jarduna./ *Jardune.* Jarduna. (JBA, 1998-11-14)

Jardúnaldi, jardúnaldie: *iz.* Jardunaldia, saioa./ *Jardunaldi bat in nion.* Jardunaldi bat egin nion. (Gauza bat eskatuz egindako hitz jarduna) (JUA, 1999-11-06)

Jarein: *ad.* Jaregin, askatu./ *Jareñ.* Jaregin. (Baseri barnean dauden behorren gainean)/ *Jarein.* Jaregin. (Landareak urreztatzeke iturria irekitzeko esanaz) (JBA, 1999-07-03)/ *Jarei ozu alde ontati.* Jaregin



› **JAONDO.** Jaondoko txabola. Jaondoko txabolak areharrizkoak dira. Gorago dauden Arriurdingoak berriz, ka-reharrizkoak. (AA, 2008-10-12)

iezaiozu alde honetatik. (Iturriaren kirtena zein aldetatik ireki behar den esanez) (JBA, 2000-02-27)/ *Jareitako katun bat.* Jaregindako katuren bat. (JUA, 1999-12-04)/ *Jareitzeko.* Jaregitako. (Katez lotutako txakurraren gainean) (JUA, 1999-09-08)/ *Oik jarei ezkeo laste dittuk Pagolan.* Horiek jaregin ezkerro laster dituk Pagaolan. (Behorren gainean) (JUA, 2004-05-12)/ *Gero atzea jarein tzien.* Gero atzera jaregin ziren. (Errekako arrainak) (JBA, 2005-08-06) (aldea **Jareñ**)

Jareñ: (ik. **Jarein**)

Jargoi, jargoia: *iz.* Lastaira./ *Jargoiak.* Jargoiak. Lastairak. (JBA, 2000-02-16)

► *Grab. Jargoia:* “Jargoia... lenau izaten tzien ba jargoiak. Oin “sumirak”-eta izaten die baiño jargoia ba muellekiñ eindako oian justuko zee bat. Lau kuadroko, kuadrokoa ez, luzekoa, oian formakoa. Da geo gaiñen eukitzen tziñen zeak, muellek. Ta muelle aik puskau're itten tzien. Sokakiñ lotuta eoten tzien eta etxen aitten genduzten. Bi o iru urteti aik eitten aitzen giñen, jargoiak eitten. Oñ ez dao olako lanik. Oñ ez dao olako lanik” (JBA, 2002-01-26)

Jário, járioa: *iz.* Jarioa./ *Onek berriz járioa men dauke.* Honek berriz jarioa omen dauka. (Zulo txiki bat daukan sukaldeshontzi baten gainean) (JBA, 2002-10-19)/ *Járioa.* Jarioa. (Beroketa sistemako urak) (JBA, 2005-03-04)/ *Járioa jarri zikonan.* Jarioa jarri zitzaionan. (JBA, 2006-09-23)/ *Ille-jarioa.* Ile jarioa. (Katu iletsu baten ile jarioaz) (JBA, 2008-11-15)

Jarléku, jarlékue: *iz.* Jarlekua./ *Jarlekue.* Jarlekua. (Harrizko eserleku baten gainean) (JUA, 2004-08-09)

Járrea, járrea: *iz. Tr.* Pitxerra./ *Jarratan.* Pitxerretan. (JUA, 1999-07-26) (sinonimoa **Pitxar**)

Járrri: *1. ad.* Jarri, eseri./ *Eon amen jarrita.* Egon hemen jarrita. (Bertan esertzeko esanez) (JBA, 2000-07-30)/ *Jarri ortxen ondon.* Jarri hortxe ondoan. (Non eseri adieraziz) (JBA, 2004-04-17)/ *Jarrita eon ai ba.* Jarrita egon hadi ba. (Esertzeko eskatuz) (JBA, 2005-02-26)/ *Jarritzea.* Jartzea. (JBA, 2005-03-06)/ *Bekoz gora jartzeko.* Behekoz gora jartzeko. (Mariaje UB-k entzuna: JBA, 2007-04-01)/ *2. ad.* Jarri, landatu./ *Jarriko diat ondo nik baatzan.* Jarriko diat ondo nik baratzean. (Pinu sorta baten gainean) (JBA, 2004-02-07)



› **JARLEKUE.** Harrizko jarlekua. (AA, 2008-10-12)

Jáso: *1. ad.* Jaso./ *Oain seittun ez jasoatio.* Orain segituan ez jasoagatik. (JBA, 1999-05-15)/ *Jasoko ttut.* Jasoko ditut. (JBA, 1999-04-17)/ *2. ad.* Jaso, entzundakoa aditu./ *Ez do jasoko.* Ez du jasoko. (Entzun arren, umeak ez duela bereganatuko entzuna) (JBA, 2002-02-23)/ *Enion jaso.* Ez nion jaso. (Esandakoa ez zuela gogoan hartu) (JBA, 2004-08-13)

Játa: *partik.* Jata, jo eta. Ekintza zakar bat adierazten denean erabiltzen den partikula da, atzetik aditz bat izan ohi duela./ *Ankakin jata bota zian.* Hankarekin jo eta bota zian. (Bera hil nahi zuena txerriak nola bota zuen) (JUA, 2004-03-13)

Jatétxe, jatétxea: *iz.* Jatetxea./ *Jatetxea.* Jatetxea. (JUA, 2001-07-14)

Játor, jatorra: *izond.* Jatorra./ *Jatorra mutile.* Jatorra mutila. (JUA, 2000-08-22)/ *Meikue jatorra.* Medikua jatorra. (JUA, 2002-02-23)/ *Mutil jatorra.* Mutil jatorra. (JUA, 2003-08-09)

Jatórdu, jatórdue: *iz.* Jatordua./ *Jatordue.* Jatordua. (JBA, 2001-04-14)/ *Jatordutatik kanpoa.* Jatorduetatik kanpora. (JBA, 2001-09-01)/ *Urrengo jatordu arte.* Hurrengo jatordu arte. (JBA, 2005-04-30)/ *Jatórdu danetan.* Jatordu denetan. (JBA, 2005-08-14)

Jatórri, jatorrie: *iz.* Jatorria./ *Jatorrie're.* Jatorria ere. (Pertsona baten jokabide baten jatorria nondik datorren) (JBA, 2007-08-26)

Jaulki: *ad.* *Nekaz.* Jaulki./ *Dana jaulkita lurren.* Dena jaulkita lurrean. (Bere pipitak inguru guztian zabalduak dituen basalizar zuhaitz baten gainean) (JBA, 1999-08-03)/ *Indua-bea jaulkita.* Indaba jaulkita. (JBA, 2005-10-29) (sinonimoa **Jalki**)

Jaun, jaune: *1. iz.* Jauna./ *Jaun aundik.* Jaun handiak. (Auzoko gauzetan aginpide handiena zuten baserriarrak adieraziz) (ik. **San Austiñ**) (JUA, 2004-08-29)/ *2. iz.* *Erl.* Jauna, elizan jaunartzean ematen dena./ *Jaune agirin.* Jauna agerian. (JBA, 2005-01-15)

JAUN DA JABE: Jaun eta jabe./ *Jaun da jabe.* Jaun eta jabe. (JBA, 2002-03-02)/ *Beori jarri da jaun da jabe.* Berori jarri da jaun eta jabe. (Txakurraren joera berriak azaltzen) (JBA, 2002-07-27)

JAUNE ARTU: *ad.* *Erl.* Jauna hartu, erlijio erri-tua./ *Jaune artzekiñ.* Jauna hartzearekin. (JBA, 2005-01-15)

Jauntxo, jauntxoa: *iz.* Jauntxoa./ *Jauntxoa.* Jauntxoa. (Garai batean, Legazpin botere handia zuen gizon baten gainean) (JBA, 2000-03-18)/ *Jauntxo antzekok.* Jauntxo antzekoak. (JBA, 2000-08-09)

Jaztétxe, jaztétxea: *iz.* Jaztetxea./ *Jaztetxek.* Jaztetxeak. (JBA, 2000-08-09)

• *Emog.* **Aiztonaga:** Legazpin baserrietatik kaleko elizara zetozen baserriarrak jaztetxean aldatzen zituzten arropak. Horrela, arropa ederrenak zikintzea edo bustitzea ekiditen zuten. Legazpiko Aiztonagako jaztetxea aipatzen du JBA-k. (JBA, 2000-08-09)

► *Grab.* **Aiztona:** “Jaztetxea da ba lenao iz-



► **JENTILLEN BOLALEKUE.** Jentillen Bolalekue delako tokia. (AA, 2005-09-09)

ten men tzan emendik juten tziener meza nausita ta ola, barriotati-da eukitzen men tzuen konfiantzazko etxe bat. Emendi, ba kao, lenau lur bidek-eta izango zien, kamiñoik-eta ez zan izango eta lokatzau eingo zittuen oiñetakok-eta. Enda olako lekutan, jaztetxe oitan kanbiau eitten men tzien, gero eliza-ta kurioso juteko, esan oi zuen. Oin bezelako kamiñoik-eta lenao ez...” (JBA, 2002-01-26)

Jéfe zárra: Geltokiko nagusi zaharra./ *Jefe zarra.* Nagusi zaharra. (Gerratean hil zuten) (JBA, 1999-05-08)

Jénde, jénde: *iz.* Jendea./ *Jentea.* Jendea. (JUA, 1998-11-07)/ *Jendea.* Jendea. (JBA, 1999-05-15)/ *Aprotxatzeko jentea.* Aprobetxatzeko jendea. (Aprobetxategiak) (JUA, 2001-12-24)/ *Jendea bildurrek.* Jendea beldurak. (JUA, 1998-10-24)/ *Zeon jendetan da kotxetan!* Zegoen jendetan eta kotxetan! (Auto eta jende asko zela) (JBA, 2004-06-19)/ *Orko jénden jénde!* Horko jendearen jendea! (Jende kopuru handia adierazteko) (JBA, 2005-08-14) (aldaera **Jente**)

• *Emog.* **Jénde armauta:** *Jendea pistolakiñ, jénde armauta.* Jendea pistolarekin, jendea armatuta. (JUA-ren esanetan bere aitaren garaian jendea armaturik omen zebilen; bere aitak bat ere bazuen, gaur non izango ote den ez badaki ere) (JUA, 1998-10-24)

Jéndéra, jéndérea: *iz.* Jendera./ *Jenderrea.* Jendera. (JBA, 2003-04-04)

Jenéalen: *adb.* Normalean, orokorrean./ *Jenealen.* Normalean. (JUA, 2002-03-02)

Jénero, jéneroa: *1. iz.* Mota./ *Jénerok.* Motak. (JBA, 2004-06-12)/ *2. iz.* Salgaia, jeneroa./ *Ango jenerok.* Hango jeneroak. (Gipuzkoan saltzen ziren Nafarroako ekoizpenak) (JUA, 2002-03-02)

Jénte, jénte: (ik. **Jende**)

Jentill, jentille: *iz.* Mit. Jentila.

• *Emog.* **Jentilak:** *Jentillek... Kuebazulotan lo in bearko zien, gizon aundik izaten men tztittuan oik.* (JUA, 1998-10-24) Gizonak jentilei igarri zieten artoa lantzeko garaia, ondoko esaera honen bidez:

*Elorrie lora lora
artoa iten giro da*

(JUA, 1999-04-10)

► *Grab.* **Jentila:** “*Jentillei artoa arrapau in men tzaean. Baiño ez men tzekien noiz*



► **JERONIMO SARRIEGI.** Gaztetako argazkia. (Oiarbide-Sarriegi sendiak emana)



› **JERONIMO SARRIEGI.** Hainbat urtetan izan zen Brinkolako apaiza. (AA, 2008-08-31)

erein bear zan. Ta kantun ai men tzittuan jentill orik: <Elorri aranza lora lora, artoa itten giro da> Ori aittu men tzaean. Elorri arantzea maiatzen loratzen dek, artoa sartzeko garaie”⁸⁴ (JUA, 1999-07-26)

Jentillen bolálekue: *Topo.* Jentillen Bolalekua, Brinkolako parajea./ *Jentillen bolalekue, Saloitán.* Jentillen Bolalekua, Saloitán. (JUA, 1998-10-24)

Jérman: German, gizon izena./ *Jérman.* German. (JBA, 2004-11-14)

Jerónimo Sarriegi: *Erl.* Jeronimo Sarriegi, Brinkolan egon zen apaiza beasaindarra./ (•)

- *Emog. Ikasketak:* Apaiz ikasketak 16 urterekin hasi omen zituen, *beandu xamar.* Baserrikoa omen zen jatorriz. Berarekin Bibiana zelako laguntzailea zuen, arreba, etxeko lanak egiten zizkiona. (JUA, 2003-05-17)
 - *Emog. Maisu:* Apaiza eta eskolako umeen maisua izan zen aldi berean./ Jeronimok Maria Ugalderi esan omen zion, berak ikasten jarraitu beharko zukeela, bere ikasketeko jarrera ikusita. (MUA, 2003-10-10)
 - *Emog. Dantza:* Apaiz honek dantza lotua ikusterik ez zuen nahi izaten, eta Brinkolatik Ormaiztegarako aldaketa eskatu zuen, Ormaiztegin dantza loturik egiten ez zelako. (JUA, 2002-01-19)/ Brinkolan eta beste toki batzuetan egiten zen dantza lotua bere buruari ere egotzen zion: apaizen ardua omen zen dantza lotua eragozte. Zera esaten omen zuen: *Gustoa nao Brinkolan, oso gustoa, baiño emen baile itten da, ta pekatue da guetako.* (JUA, 2003-06-07)
 - *Emog. Argia:* Apaiz honek Olazarrekoei “Argia” artu eraiten ziun. Berak berriz, “Kostantzia” erosten omen zuen. (JUA, 2002-01-19)
 - *Emog. Fedea eta ohiturak:* Bere fedea sakontasuna aipatzen du, *ua eliz-katolikoa zian, geieikoa’e bai.* (JUA, 2003-06-07)/ Zera esaten omen zuen Don Jeronimok: *Errezau in bear dik jan aurretik.* (JUA, 2003-12-31)
- *Grab. Jerónimo Sarriegi (1):* “Geo besta batzuk, arek alde inda geo besta batzuk’e bai ta kambiau ta ala. Nik ezautu nian lenengo torri zan abadea, Beasaingoa zian, geo

(...) urdun, urdun apaize iñ ta ona, Brinkola, destinau oixpok. Da Don Jerolimo Sarriegi, gero emen ba emen gustoa men tzeoan. Emen geerora soiñue eo ola, ola zerbait, da baltseon itten tzala. Ta arek aguantau eziñ baltseo ori, “gure responsabilidadadea da ori emen baltseon ta guk (...)”. Kalte men tzian ta ala’re jentek segi... Da Ormazteira jun tzian... Don Jerolimo, Don Jerolimo Sarriegi. Ormaizteñ ez men tzian soiñuik-eta jotzen, baiño ola jotzen tzala. Jotzen men tzien zea bakarrik... txistue ero olako (...) batzutan, txistue ta danborra jo. Da, baiño soiñue ez, enda ola balseon eta eziñ eiñ ordun. Enda orreatio, emen balseon itten zalata, alde, emendik. Oso gustoa zeola” (JUA, 2002-06-15)

- *Grab. Jerónimo Sarriegi (2):* “Bueno, len Don Jeronimona etorri zat baiño gero... Baileena. Ez zikon gustatzen “baile al agarrao” ori eta goiko taberna, o goiko plazan jotzen zon Arrezalgo Bitor Andueza zanak. Eta bein ba, klaro, eurie ein zon-da, ezin ba dantzaik eiñ. Da estazioko almazena leku in tzuen mutillek, zeatik ordun estazioko almazenea Azpeititik-eta, silloiak, zumazko silloiek eta orik asko etortzen zien. Asko, bueno ikusten gendutzen nola etortzen zien eta andik gero ez takit noa eamaten tzittuen. Eta juntau an tzeon paketerie ta an tzeona, ta leku pixkat dantza eitteko. Ta klaro, plazan eurie ai zan, jendea ba, al tzona, ba dantza pixkat eittea, da gu dantzaik, nik amairu urte neuzken ordun, akordatzen naiz oso ondo. Urrengo eumen eskola jun bear gendun arten, gu ikustea, klaro, leorpea, araxe. Urrengo jaien zien kontuk elizan! Ura zan sermoia bota zona! Don Jeronimok! “Baile agaurraun, baile zerrraun”, ordun plazan eiñatik etzien inportako, zerrauen ura, oandio grabegoa! Bueno! Arek esan tziunak asarre! Ta etxea jun da ama demandan urrengo... Amak demanda in tzian! Amak demanda in tzian! Nik esan nion, gu ikustea jun giñela, “nik ez det dantzak eiñ”, gu ikustea jun giñela, eurie ai zan ba kanpon da barrua jun giñen. Baiño demanda... Ola”. Jeronimo maisu ere bazen eta eskolan kontu hau izan zen hortaz: “Ez, ez, ez, ez, urrengo jairarte, urrengo jairarte bai, eskolan ez. Arek bazekiñ eskolan geitzenak arten ez gendula dantzaik eitien, arek bazekiñ umek ez giñela arten. Baiño aundigok zeren an aurretik-eta... Baiño alaxe zan, da arek ezin zon aguantau ta gero eskau zon nunbait et Ormazteira” (MUA, 2003-04-11)

- *Grab. Jerónimo Sarriegi (3):* “Don Jeronimok daneta eitten tzian. Baserrikoa zian, atxurren’e ba baatzan, sotanea gora jaso ta atxurren baatzan eitten tzian. Don Jeronimok Sarriegi, eitten tzian aek, atxurren’e plazan, zean, batzatan itten tzian. Ta geo neskea zian, arrebea Bibiriana. Bai, Bibiriana. Ta bera entierora ta ola juten zanen, aek esanda zeukian umei eskolea emateko. Ordun maistrea esaten zikoan, maistrea. Baiño ez zian maistrea, maistrea esaten zikoan, Bibiriana. Bai, ala zian...”



› **JERONIMO SARRIEGI.** Zahartzaroko argazkia. (Oiarbide-Sarriegi sendiak emana)

Euskal festetara eraman zituen bitan bere ikasleak: “Oixe, bein Maria jun tzian Zumarra, euskal fietata. Leitzan⁸⁵ bizkorra zian, oso bizkorra zian-da, eta ekarri zatuen, gure aitte berriz’e, “beti, beti orti aurea, etxen anbeste lan da orti aurea, beti”, ta zean da, gero etorri zian, da bos duro eman tzaan, bos duro zenbat balio zon! Bos durokiñ etorri zan Maria etxea, bai. Gero berriz, urrengo, urdun enitzen ni izan, gero jun bear zala Seguraa, Segura. Urdun Maria etzan izan, ta ni izan nizen Seguran. Da an jente asko giñen. Nik leittu non, Xabierto, leittu non. Aurretik’e Don Jeronimok erakutsita, erakutsita genduzken, ta nik, Don Jeronimok aindu eitten tzian, zeñ Seguran, alaxe epiñita zeonda, ta nei esan tzaen: “Leittu Xabierto”. Xabierto berriz, memoriz ia banekin. Taka-taka-taka-ta leittu nian, geo besta batzuk’e bai ta urdun asko giñen-da, danondako, pelotak, baloiak...”



› **JERONIMO SARRIEGI.** Urte askoan izan zen Ormaiztegioko apaiza. (AA, 2006-02-12)

⁸⁴ Aitak kontatutakoa dela dio Juan Ugaldek./ Hau eta antzerako kontuak oso gustokoak omen zituen bertan apaiz egon zen Felipe Barandiaranek.

⁸⁵ Hitz honekin *leitzen*, alegia irakurtzen adierazi nahi du.

JERONIMO

Eta olako gauzak eman tziun danondako, olako, (...), danondako eman tziun. Bai. Geo geiao etzan izan olakoik. Ta euskerea, ta euskera bear tzala, ta euskerea! Ta euskerea... baiño erdere-a're bai. Don Jeolimok esaten tzian: "euskerea, baiño erdere-a're bai!". Ta eskolan erdere-a, ta amilloa gaiña zapatum" (JUA, 2003-05-17)

- Grab. **Jerónimo Sarriegi (4)**: "Berritsue... ona, "un santo". Ura zerun ez padau, bueno, bat, gauza bat ori. Baiño pazientzie're aundie zeuken. Sei urtekin sartze giñen gu eskola. Zeati gure eskolak... Ori esan nizun lenau? Sei urtekiñ, amalau urte arte. Neska ta mutill, barriko danak, edade ortan. "Pazientzie bear zon", esaten zon, "ez dek erreza umeti gizona eittea". Ori askotan esaten tzon. Arrazoia zeuken. Eta guri, ba auzokon batek eo ola ikusi ta neska kokorra, sei urtekoa, ta "noiz ju bea zu ba eskola?", bakizu, umei galderea ta, "kukuk jotakon". "Kukuk jotakon" esaten gendiun. Udaberrin, gure kursoa udaberrin asitze tzan. Ola, eta bueno, gaiñeakon ze esango izut? Eskolaan ba, arek'e klaro, esan dian bezela ba, gu aundientxonak giñen garaien, "por ejemplo" ba ordun entierrok-eta goizetan itten tzien, oiñ atsaldetan itten dien bezela. Apaiz danak juntatzen, bazeon parrokin naiko apaiz baiño ura're etorri in bear izaten tzon entierroa. Eta askotan abixok artzen tzittumen, emen parrokiti, ba eskola utzi ta gero, illuntzan edo ola, urrengo eunen entierroa zeola ta ola. Ta jakiñe, umek gelditzen giñen gu ba ezjakiñen, eta ordun ba arrebak zabaltzen tziun atea. Zabaldu atea bakarrik zeati arrebak bazeuken baiño berai laune itteko o launtzeko zeuken. Etzeuken estudioik. Guk geio gendekium, amairu-amalau urtekok, arek baiño, egie esan. Etzon estudioa, arek etzan, eskulana eitten bai, gantxillo, bainika, ta eskulana bai, bai. Eta ordun ba klaro, askotan juten tzien Teillarteko mutillek'e bai. Zuk Martin Ugarten aitzerea eukiko dezu...". Saletxe, "Saletxe, Saletxe. Ara eskola juten tzan. Tio Joxekiñ, Olazargo tio Joxekiñ, teatroa itten-da, akordatzen naiz, ura're bai. Nere edadekoa zan Martin, zortzi, zazpi-zortzi eunen alde bakarrik genduk. Eta ola, da gero beste batzuk'e bai juten tzien. Eta negun geigo gaiña, baserritik eta ola, eta klaro, aiei, "aber" ba, ze erakutsi bear zien arek, Bibiana zon izena. Ze erakutsi bear zien arek? An zeiltzenak geigo zekien-da. "Dictado" bat eitten pizaran, edo bestela txikiri erakusten-edo. Goiz ura ala pasatu bear izaten gendun. Ala pasatu bear izaten gendun. Baiño jakiñe, esaten tzona, Saletxetik, Zelandakok eta araiño jun eskola-ta, "Don Jeronimo ez dau" ta atzea etxea eziñ ba bialdu. Atek zabaldu eitten tziun Bibianak. Ola. Eta gaiñeakon, berak etzekiñ asko, Don Jeronimok. Esan nizun ori nik len, ez? Berak etzon estudioa, apaiz itteko estudiaturko zon, apaiz itteko bear zana, baiño maixu o profesore izateko, ba ez. "Las cuatro reglas" eta andi aurrea, "dividir"... bueno asko geigo etzekiñ, berak esaten tzon. Eta ordun esaten



► JESUKRISTON-ATZAPARRAK. Izen bitxia dute landare hauek. (AA, 2006-05-27)

tzien, ba mutillek eskola geigo bear zuela. Ori esan nizun, akordatzen ztea? Ori da, ori da... Ta neskak berriz, josten, plantxan da koziñan... Ori esaten tziun beti. Eta klaro, koziñan, baiño neskan-dako ordun etzeon, okasioik edo beno, oain bezelako moduik, "vamos", eozer gauza ikasteko. Ordun ba maestra. Maestra bear zan, beste profesioik o beste zeak, ezin zan beste karreraik eiñ. O mediku-eo... Monja, monja jun bear. Baserri geienetakok, Olazárgoa're bazan monjea aittuta eongo zea. Nola zan monjea, Billabonan il tzan, nere aitan arrebak, nere aitan arrebak, zarrena, Olazargoa. Eta baserri geienetan monjak, klaro, etzeon beste ezer-da, eo ezkondu edo monja, bai. Gazteik il tzan ba monjea, Olazarren badie ba aen argazkik bai, aen argazkik. Bai eta, ola eta gaiñeakon, arena ze esango izut geigo? Arek, refranak eta ola bai asko, ola, ta esaera zarrak eta ola, asko zekitzen. Da karreraik ez gendun artu baiño arek ematen tzon, o eman nai zon-edo edukazioa, ta respetoa, aik pai, aik ikasi gendutzen. Gero gaiñeakon goizetik dotriña, atsalden "historia sagrada", ola" (MUA, 2003-10-10)

- Grab. **Jerónimo eta Bibiana**: "Aizkenen, ezin zola konsegittu, ta ezin zola aguantau Brinkolako gaztedie, ta Ormazteira. Ormazteira jun tzan eta an arten etzan eingo nunbait. Beintzet ara, ta geo an il zan. Gero arrebak bat zeuken, Bibiana, solte-rea. Berakin, zaitzen zona o bera launtzen tziona, baiño etzan maestra. Bera baiño geigo gendekium guk ia. Aundientxonak beintzet guk geuk gendekium-da, ordun entierro...". Bibianak baino gehiago zekiten umeek: "Bibianak baiño geigo. Don Jeronimokiñ'e... Ordun entierrok goizetan eitten tzien beti. Eta entierroa etortzen tzan, emen'e apaizek eoten

tzien, oiñ baiño geigo, baiño danak etortzen tzien, etortzen tzan entierroa. Eta askotan pasatzen tzan, ba klaro, illuntzan o atsalden, eskolati irtete gendun garaien ez pagendekium entierroa jun bear zoni, abisoa gero eman tzeiken, artuko zon da ola, ba jendea... Gu gertu genden baiño Saletxeko Martin zana, Zelandatik Isidoro ta orik danak Brinkola juten tzien. Ta pensau, ba aiendako, ordun eitten tziun, Bibiana orrek ba atea zabaldu. Atea zabaltzen tziun baiño berak (...) baten diktadoa ittea bialtzen gendutzen, besten ez tait ze leitzea, ta urrengo txikiri erakustea-ero, goize artan pasatzen gendun". Goiza pasa behintzat: "Bai, bai, bai, ooixe. Eta, gero ze esan bear non?, gero ba, eskulanak eitten bazekin Bibianak. Bestela eskolaik etzeuken, eskolaik etzeuken batetxo're. Eta Don Jeronimok'e etzeuken eskolaik, arek'e estudioik eingo zittun apaizetako, baiño andik aurrekoik ez, beak esaten tziun. Guk "las cuatro reglas": dibisioa, (...) ikasi gendutzen ta berak esaten tziun, askotan esaten tziun gaiña: "nik ez dakit geigo erakusteko moduik, ez det artu nai konpromisoik zeatik ori ez det estudioa orti aurrea". Don Jeronimok, apaizek esaten tziun. "Mutillek eskola geigo bear due, mutillek eskola geigo bear due", ta mutillek esaten tzien, ia amalau urte-edo, irtetzeko garaien zeena, bai, Juan da Joxe're Zumarra juten tzien gero, "Hermano"-ta. Euzkitzako Demetrio Oiñitira, ta beste Igaldekok ez takit noa, ta ola. Eta esaten tzien aiei ba, "ez taukeze bate (...) konpromisoik nerekiñ. Zuek, mutillek geigo bear do eskolea; eta beste leku batea jun nai badezue...", ola. "Neskak bear due gutxigo, neskak gutxigokin naikoa da... neskak...". Aittuta eongo zea lenau're, ala?... "Neskak bear due josten, plantxan da koziñan." Ta ori askotan. Ta

gero, klaro, len esaten asi naizena, Bibianak eskulanetan zekiñ. Ta berak al tzenen, beti ez, etxen lana balin bazeuken ba etzan juten, etzeuken bate obligazioik eta etzan juten, baiño erakustea, guri erakustea juten tzen eskola. Gu gustora ikusten gendun! Bestela goizen dotriña ta atsalden, "historia sagrada", orti pentsau ze ikasi gendun guk. Bate eskolaik etzeuken maixue...". Dotrina behintzat ondo ikasten zuten: "Guk ez gendun kalabazaik etatzen ona etortzen giñenen komunio aundie itteko. Ango bikario zarrak esan tziuna: "bai, bai, badakit, badakit, Brinkolan ondo, Don Jeronimok ondo erakutsita bialtze zaitue". Ta guri txartela bealaxe ematen tziun. Bealaxe ematen tziun txartela komunio aundie eitteko. Baiño bai... Eta karo, nik antxe ikasi non puntilla eitten. Bainika...". Azken hau Bibianaren kontua zen: "Dana Bibianak erakutsita, ori, oitako "trapo de costura" aundi bat dauket. Gaiña mazona're einda dauket "punto cruz"-en, bata da olako aundie, "aber" zenbait, letra utsezko abezedariora (...). Ta bestea, "flores y fruta" eta ola. Da baten, "lo hizo en la escuela de Brincola Maria Ugalde, a los diez años", ura ipiñita, punto kruzen. Andi bi urtea beste (...) bi urte, bi urte, "con doce años" urrungon" (MUA, 2003-04-11)

Jertrudis: Gertrudis, emakume izena./ *Jertrudis.* Gertrudis. (MUA, 2005-02-04)

- *Emog. Olaberriako Jertrudis:* Emakume honek urte asko harrapatu zituen, eta urtemuga batean hala egin zioten:

-Urte askotako

-Urte asko pasau in zaen.

(MUA, 2005-02-04)

Jesúkrison-atzapar, jesúkrison-atzaparra: *iz. Bot.* Jesukristoren hatzaparra, landare mota. (Pluralean esaten da). / *Jesukriston-atzaparrak.* Jesukristoren hatzaparrak. (JBA, 1999-06-26)

- *Grab. Jesukriston-atzaparrak:* "Guk emen landara bati esaten diu jesukriston-atzaparrak. Ba ori're landara bat izaten da, eta ola igo eitten do, esola o eozein lekutan igo eitten do goora, aiena bezela, enda gero lora, lorak irtetzen dio, "o sea", lenengo pepitta ta gero lorak da eskue bezelaxe, o beatzak bezelaxe, olaxe irtetzen don lora bat ta. Usaie oso goxoa eukitzen do, eta guk orri esaten, esan oi diu, jesukriston-atzaparrak. Ez taie, ez dakit beste inoi zer esaten tzakon, guk orri bai" (JBA, 2003-04-26)

Jésus!: *interj.* Jesus!, harridurazko esakunea./ *Jesus! Jainkon izenen! Jesus! Jainkoaren izenean!* (Harridura adierazteko) (JBA, 2005-06-25)

Jesús, María!: *interj.* Jesus, María!, harridurazko esakunea./ *Jesus María! Jesus María!* (JBA, 1998-07-11)

Jesús, María ta José!: *interj.* Jesus, María eta Jose!, harridurazko esakunea./ *Jesus, María ta Jose! Jesus, María eta Jose!* (JBA, 2005-01-01)

Jétsi: (ik. *Jaitsi*, bi adierak)

Jíbau: *ad.* Konkortu./ *Jibauta dao.* Konkortuta dago. (Pinu oker baten gainean esana) (JBA, 2000-07-30)/ *Jibauta daok.* Konkortuta zagok. (Gorabeheratsua den harri baten gainean) (JBA, 2005-08-12)

Jilgéro, jilgéroa: *iz. Zool.* Kardantxiloa, hegazti mota./ *Jilgeroa.* Kardantxiloa. (JBA, 1998-09-12)

Jinéta, jinétea: *iz. Zool.* Katajineta, ugaztun mota./ *Jinetea.* Katajineta. (JBA, 1998-05-23)/ *Iez eaman zikun oillok katajineta batek.* Egunez, atarin burue moztuta agertu omen zen oilo bat. (JBA, 1998-10-31)

Jíra, jírea: 1. *iz.* Ibilaldia, bira./ *Jireá.* Buelta. (JUA, 2003-06-07)/ *Oillori in diet jireá.* Oiloei egin diet buelta. (JBA, 2003-12-14)/ **2.** *iz.* Moldaketa, egoera./ *Beste jira bat.* Beste jira bat. (Emakume bat baserri batera joan zenean, bertako egoera guztiz aldatu zuela adierazteko) (JBA, 2004-03-21)

Jírau: *ad.* Moldatu, jiratu./ *Fabriká etziela juten da ala jirau bear.* Fabrikara ez zirela joaten eta hala jiratu behar. (JBA, 2004-08-14)

Jo: 1. *ad. Nekaz.* Jo./ *Gaur jo inat.* Gaur jo dinat. (Indiaba lekak jo aletzeko) (JBA, 2000-11-04)/ *Jóten tzián euzkik gor.* Jotzen zian eguzkiak gogor. (JUA, 1999-09-08)/ *Euzkik joko zñan.* Eguzkiak joko zinan. (Sail egutera baten gainean esana) (JUA, 2000-01-04)/ *Jo bat eman.* Jo bat eman. (Astindu, matxeteaz astindu beharreko lahar batzuen gainean) (Joxemari UB, 1998-07-10)/ *Sokorrak jo.* Zokorrak jo, zokorrak hautsi. (JUA, 1998-05-23)/ **2.** *ad.* Jo, zer gertatuko den./ *Ezin leike esan zerta jo leiken.* Ezin liteke esan zertara jo lezakeen. (Pinuen prezioak) (JUA, 2004-08-13)/ **3.** *ad.* Jo, iritsi, ailegatu./ *Orra jotzeaiño.* Horra jotzeraino. (Lur sail bat noraino hedatzen den adieraziz) (JBA, 2008-03-13)/ **4.** *interj.* Jo!, harridura azaltzeko esatera./ *Jo! Jo!* (JUA, 2003-07-16)

JOTA: *adb.* Jota, orduarekin esaten da./ *Amáikak jota.* Hamaikak jota. (Orduaz) (JBA, 2004-08-13)

JOTA EON: *ad.* Jota egon, minduta, gaizki egon./ *Jota dao beorra.* Jota dago behorra. (JUA, 1998-09-17)/ *Laizioa jota dau.* Larizioa jota dago. (Jota dago, merkatuan duen salneurri txikia adierazteko) (JUA, 2002-12-25)

Joakiñ: Joakin, mandazaina./ *Joakiñ* Aizarnazabalekoa zen. Oso langilea zen. (JUA, 2002-01-19)/ Joakin mandazainak zera esaten zuen agur eran: *Eunon Jangoikok eman daizuela*, eta zera erantzungo zioten: *baita zuri ere.* (JUA, 2004-09-18)

Joan Pitxi: Zeraingo tratantea./ *Joan Pitxi* izan ohi zen Brinkolako baserri batzuetan txerrikumeak inguratzeaz arduratzen zena. Aurpegian loreak omen zitueltako deitzen zioten horrela. (JUA, 2004-03-13)/ *Gizon hau flakasta bat zan, luxe bat eta musua gorrixka zuen.* Jantzia



➤ **JOAKIÑ.** Mandazain honek Aizkorri aldeko paraje askotan lan egin zuen karreo lanean. (Jose Luis Ugarte emana)

berriz brus bat ebaltzen tzon... luzea bruse.⁸⁶ (JBA, 2004-03-13)/ Txerriekin ibiltzen zen tratulari hau emendi juten tzen feri-feri, aldean txerri bandea zuela. (JBA, 2004-08-10)/ Azoketara eramandako txerriak Lenkaran baserrikoak ziren, han txerriak atera egiten zituzten eta. Joan Pitxi berak ere hala zioen: <<Lenkangok die>>. Txerrikume hauek goseak egoten ziren. Tratulari hau Arrobi aldetik jaitsi eta Brinkolazarren lo egiten zuen. (JUA, 2004-08-10)/ *Altu bat, kolore gorrikin, ximel bat.* (JBA, 2008-11-30) (*)

- *Emog. Bere makila: Makilla fin-fiñe, luxea ta fiñe.* Makila fin-fina, luzea eta fina. (Halako makilarekin ibiltzen omen zen Joan Pitxi) (JBA, 2008-01-12)/ Txerriak zior batekin menderatzen ziren. Joan Pitxi tra-




➤ **JOAN PITXI.** Artzain izan zeneko argazkia, Urbiako txabolaren aurrean. Txerrikume tratuan ere ibili izan zen. (Enrique Guinea: GUI-VI-9.5)

⁸⁶ JUA-k zera erantzen du: **belauneti beera** zela brusua hau. (JUA, 2004-03-13)

JOERA

tanteak txerrikumeak ohituta zituen, eta bere atzetik joan ohi ziren, kamiñ bazterretan. (JUA, 2004-03-13)

- Grab. **Joan Pitxi**: “Joan Pitxi... Joan Pitxi esaten tzikon gizon aundie ta ederra, gizona. “Pitxi” esaten tzikon, aurpegiñ zeuzken, lorak zeuzkela aek arpegiñ. Lorak esaten tzikoan gizon ederra zalako, oso gizon ederra. Orreati esaten tzikon. Izena epini zioen. Ta ura feriiik-feri, Oiñatitk... Zeraindik etorri, urrengo eunen gue, gue ikuillun eukitzen zittun txerrikumak, bai. Bai, “gure txerriteiñ aundie kendu diau ta txerrikumak biar arte”. Da bai, batzutan emen ne amanrek eukitzen tzon lo itten’e. Geo Oiñatiko ferie, ta Oiñatiko ferira txerrikumakin, bai. Oaiñ aiñe kotxea etzian ordun, etzian kotxe. Brusa aundie jantzi”. Txerrikumekin oinez ibiltzen zen batera eta bestera: “Oiñez, oiñez, oiñez. Baai, baai. Eta geo, besta at zan, guk beti Joan Pitxiri artzen gendium, da emen Moñiteik, Barrendiolako-ta’re bai. Oriki’e bai, Euzkitzakok’e bai. Geo, besta at zat tratálari ola ebilte tzana, Kaspar esaten tzikon, izena men tzon Kaspar. Aek ealte men tztittun. Da emen’e, ordun, tabernatan’e artzen tzioren ta Arrezalen’e bai, ta Ialden’e bai, Kasparri. “Klase ona”, beak esaten tzon. “Raza ona nai izaten diau berriz’e aundik itteko”, ta alaxe ebilte giñen. Bai, ia gaonak ingurun. “Raza” ttikie, ola, ttikie erosi, da ua gaonetako ola aundi itteko. Da nai izaten tzan, aundik sobrau itten tzikola beti, ondarrak-eta. Ondar aikiñ txerri ttikie, mantendu itte zala. Bai, mantendu itte zala txerri ttikie, aen ondarrakiñ. Alaxe epinte gendun. Zeraindik etortzen tzan, goitti bera zuzen, Brinkolazarra, an gure Arrobotik, basotik buelta, txerri, txerri txikikiñ etortzen tzan. Ta andik bazerrik-bazerri saltzen, lenengo Brinkolazarrea, etorri txerrikiñ, an ikuillu bazarren-eo ipini, eta bea an apaldu eta Brinkolazarren lo. Urrengo eunen, Oiñatiko feria. Ematen tzien baba, babea, artalea ola ematen tzien. Guk’e, guk beti ari artzen gendium-da txerri, da “ondio ez daukezue beste txerrik?”, “Alako txerrik, arraza ederra, Mutilloko alako baserrikakok ttuk, Lenkáan, Lenkángo baserrikakok ttuk. Da luzeek, luzeek geo txerrik, raza luzea, raza ona”, ta Joan Pitxi orrek. Da ala, Brinkolazarren euki aldik, goizen gozaldia, eta, eta txerrik euki. Brinkolazargo andre, e! “Nik’e txerrik euko ttut, txerriteiñ, nere ikuillun, baiñ txerri bat utzi bear diazu nei”. Da geo tratue eitten tzuen, txerrik, da txerri txikiri aparie ematen tzien. Arto alea ta ola maten tzien da, geo lo itteko’re ohea bear zon da, Juliana zon izena, da Julianakiñ lo iñ beak, Joan Pitxi, ala eitten tzuela. Julianakiñ lo eitten zola⁸⁷. Gabana, goitti berako gabana aundie. Da geo Udana, noabait-eo oinez da geo, goitti bera, “ño, gaur’e ferie, Oiñatiko ferie”. Ara juten tzan, Oiñatiko ferira. Julianak aparie ematen tzion, beakiñ lo iñ, eta gizon ori, Oiñatiko feria. “Raza ona, raza ona, raza oona!”. An batzuk’e faltak, jakitten tzon ze etxetan falta izaten tzan, Udanati berako baserrian, “ondi ez daok pa emen, ez daok



► JOLASA. Umeak marroketa jolasean. (Maria Jesus Ugalde, 2008)

pa”, ta txerri taldea, txerrikumaak, “ta antxe’re bat”. Da geo, kalen, feriin, plazan, antxe saltzen zittun. Dana saltze ez bazittun, urrengo eunen, Oiñatitk aurrea, antxe, ondio bazeuzken an etxe batzuk-eta, an. “Etxe aitan ez dek ba eongo ondio zeak”, eta ara juten tzan. “Ondio emen bazeok” eta dana saldu arte. Bai, ura tratálarie ero ola zan, baserri-tan eoz, ta geo zean zaldu, ta asko saldutzen tzon, gaonak ingurun txerri ttikie. Guk beti ari artze gendium. Eta, eta “ok dituk, Mutilloko alako baserrikatit”, da nere aman ama Mutilloko bazerrin, an etaatzen zittuen, nere aman etxen etatzen, Lenkáan. Aittuko zendun ba zuk, Lenkáan men tzan, ama, zure amanren etxea, eta “angok die, ango raza, ango zeak, oonak! Etxen, etxen jaiotakok!” Ta luzeak, beti luzeak, (...), ta guk beti Joan Pitxiri artzen gendium txerrie. Aek’e baserri geiaotan’e eosten tztittun. Da tratálarie nola zan, Zeraiñen’e bai, osten tztittun, da geo ferii-feri ibiltzen tzan ua. Bergara’re juten tzala, (...), txerri saltzea, txerrikuma saltzea. Urte... zearako, gaonetako, gizentzeko, txerrikumak saltzea. Ta alaxe ibiltzen tzan, bai. (...) Gue amanrek’e kontu asko izaten tzon aekin, jakin nai izaten tztittun, Mutilloko ta Zeraingo kontuk, jakin nai zittun. Aek danakati esaten tzien. Pozik, pozik... Joan Pitxi, gizona ederra zalako, Joan Pitxi esaten tzion” (JUA, 2004-03-13)

Joera, joérea: iz. Joera, norabaietara joateko ohitura./ Zeama joérea. Zegamara joera. (JUA, 2000-11-11)/ Joera. Joera. (JBA, 2005-03-26)

Jokálari, jokálarie: iz. Jokatzaillea, jokalaria./ Jokalarie. Jokalaria. (Aputu zaletasuna zuen gizon baten gainean) (JBA, 2004-09-18)/ Jokularie, jokalarie. Jokalaria, jokalaria. (JBA, 2006-04-17)/ (aldiera **Jokulari**) (sinonimoa **Jokatzaille**)

Jokátzaille, jokátzaille: iz. Joka-

tzaillea, jokalaria./ Jokatzaille. Jokatzailleak. (JUA, 2002-02-02)/ (sinonimoa **Jokulari**)

Jókau: ad. Jokatu./ Ez al do jokau aspaldiñ? Ez al du jokatu aspaldian? (Pilotari batek) (JBA, 2004-04-03)

Jóku, jókue: iz. Jokoa./ Jokue ori izaten tzan. Jokoa hori izaten zen. (MUA, 2003-10-10)

Jokúlari, jokúlarie: (ik. **Jokulari**)

Jókun in: ad. Jokoa egin, jokatu./ Jokun in bearko deu. Jokoa egin beharko dugu. (JBA, 2000-12-31)

Jólas, jolás: iz. Jolasa./ Jolas onak. Jolas onak. (Txakurrak eta katuak) (JBA, 2000-10-28)/ Jolasen. Jolasean. (JBA, 1999-11-27)/ Jolasen. Jolasean. (Txakurra) (JBA, 2000-02-24)/ Ume guzik jolasen. Ume guztiak jolasean. (Txakurkumeen gainean) (JBA, 2001-08-26)/ Jolas ónak dailtz. Jolas onak darabiltza. (Katu txikiak) (JBA, 2004-06-12)/ Jolasen asi. Jolasean hasi. (JBA, 2006-08-19)/ (*)

• Emog. **Jolasa eta eguraldia:** Abereen jolas handia edo zenbait jokaera arraro, datorren eguraldiarekin lotzen da. Txakurraren jolas etengabea elurrarekin lotu du. (JBA, 2007-02-17)

- Grab. **Garai bateko jolasak (I):** “Marroketa, putxumiketan...”. Zer da marroketa? “Marroketa ba, bat jarri paetan kontatzen. Amar kontau bear o ez takit ze izaten tzan. Da geo izkutu gaineatikoa eta geo ba, billau bear izaten tztittun danak. Eta bittarten, ba bat, o zee ori, alde baten beitzen ai zan bittarten, bestek igual, nola esaten tzan? Zea itten tzion beintzet ta ordun dda, beak atzea zea in bear tzon. Ez takit nola esaten tzan, nola esaten gendun’e... A! “Marro”, “marro” esaten tzan. Marro esaten tzan. Bat an kontau zon ura billa, ta beste aldeti irten da marro itten balin bazion ba atzea bea. Geo ez tait

⁸⁷ Honek adierazi nahi du Brinkolazar bertan hartzen zuela ostatu.

nola izaten tzan, zeiniek, "o sea" marroik eiñ ezen... azkena billautakoa-o, o lenengo billautakoa ez takit zein izaten zan atzea kontatzea. Baiño jenealen, ua alde baten zanen, bestek besteti ein zea-ta... Sokasalton 'e bai, ortan 'e bai. Tabaketan, eta tokotorren 'e ibiltzen giñen...". Zer da hori? "Oi izaten tzan ola distantzi puskatea, batzuk alde baten ta besta batzuk bestalden. Ola leku zean, leku... ez ola zabal da ola ez, metro pare bateko zean distantziñ o ola. Ta bestaldekok 'e berdiñ. Geo eoten tzan erdie... erdi, erdiaño jun bear tzon-eta... Erdiaño jun bear tzon da geo ikutzen balin bazion bestaldekok, ordun galdu o fuera, o ez takit nola izaten tzan 'e. Tokotorren... zuek ez daukeue zeai. Ez ta-kezue olako zeai". Beste jokoak: "Beste zee bat izaten tzan, ola arrastok einda, kamiñon arrastok einda, nola zon orrek izena. Zuek ez al ziñeten ibiltzen, arrie botata, ola koadrok koadrok einda, ez dakit nola zon orrek izena. Oiñ 'e ikusi izan ttut nik. Oiñ 'e ibiltzen die". Jolasak non egin: "Bueno. Tokotorren kamiño baten o ola in bear zan. Leku zea bear tzon ezta? Amen ola ta bestaldekok bestalden ola. Ona erdiaño etorri ta ikutzen balin bazion. Ba ola izaten tzan, galdu. Ola. Galtzen juten tzan. Ori leku zee baten bear tzon. Oiñ putxuniketan eta ola, kamiñon 'e igual, ortan 'e. Ortan 'e-ta... Ori, beste zee ori... Jakin bea zu ba, ola izaten tzan. Ta amen jarri ta arrik bota bear izaten tzuen. Lenengo bat, bi, iru, lau, bos, sei, zazpi. Eta kao, botatzen ez bazendun zuzen, ba galdu eitten tzendun. Geo, azkenean etorritakon, ordun izaten tzan zee bat, emendik atzea bota bear tzon. Onak nola zon izena onak, gu au, gu ontan asko ibiltzen giñen" (JBA, 2002-03-21)

- Grab. **Garai bateko jolasak (2)**: "Ba ibiltzen tziñ, gue garaien, bai, bai, zeozer bai, kaniakiñ ibiltzen tziñ, modea zanen, batzutan izaten zan ba sokasalton, besta atzutan marroketan, besta atzutan putxuniketa, eta tortoloxketan 'e bai, solkasalton... Da modan izaten tziñ, eoten tziñ, da ordun ba, beti jolas baten o besten. Ola izaten tzan, lenaoko zea, ta oiñ 'e, oiñ nik uste et pixkat seitzen dola orrek, oiñ 'e. Oiñ zee geio daukie-ta, beste dibersio geiau daukie-ta, bai diela makinak eta bai diela, beste milla gauza daukie" (JBA, 2003-04-26)

- Grab. **Garai bateko jolasak (3)**: "Umetako jolasak? Tokotorren, antxiñtziñka ola, arrie bota-ta, markak eitten die ba, ola tizakiñ-o, jakingo zu ori, eta ori, sokasalto. Ta geo sokasalto. Neskan zea, jokue ori izaten tzan, bai. Sokasalton, sokan, sokasalton, geienbat. Kúriketan 'e ola bai, lekue segun... Márroketan (...) bakizu, márroketan ez dakizu zer dan, gordeta, ura billatzen da ola, ortako 're lekue propio bear izaten da, ezta, bestelakon berriz ba errezago. Ortantxe. Ta gero mutillek ibiltzen tziñ, mutikok, eskolapen, eliz-atarie zan da, "pan y vino". Poxpolo kajak, bakizu, poxpolo kaja txikik, txikik, eta alde bateti "pan" da besteti "vino".



► JOLASA. Umeak tortoloxketa jolasean. (Maria Jesus Ugalde, 2008)

"O sea", alde bateti etzuen letraik eukitzen, ta besteti propagandakoa-o, (...). "Pan y vino", "pan o vino". Ta ura zeiniek (...) tzon ba, mutikok ala ibiltzen tziñ. Pelotea-ta, futbolik etzeon ordun arten, futbolik etzeon. Gaiñeakon, ori beintzel". Tortoloxketa zer zen: "Tortoloxakiñ... Arkumeik ez gendun jango-ta... Tortoloxak gutxi izango zien, ez gendun, bakitt (...) itten tzana, bai. Geure tortoloxakin, koloretan pintau-ta, gutxi izate... Ez, orta ez gendun". Kalderonketa ere bazen: "Bai, kaldeonketea eitten tzan, baiño ori garizumakoa zan... Bai, garizuman bakarrik, bai. Ori garizuman, ze gauzea, e! Eta eitte gendun, or gaiñea Brinkolatik kruzeraora juten da ba, kruzerao jakingo dezu goititik gero Teillartea... an eitten gendun kamiñon. Karo, bestela noa jun, da kamiñon. Oaiñ ainbat kotxe etzan ibiliko, bat etzan pasauko-ta, an kaldeonketan, ori bai. Jaietan bakarrik ori eitte gendun. Ta gaiñeakon ze esango izul" (MUA, 2003-10-10)

Jolásaldi, jolásaldie: iz. Jolasaldia./ Jolásaldie. Jolasaldia. (JBA, 2001-05-08)

Jolásgura, jolásgurea: iz. Jolasgura./ Jolásgurea. Jolasgura. (Txakurkumeen gainean) (JUA, 2001-08-26)

Jóño!: interj. Joño!, harridura azaltzeko./ Joño! Joño! (JUA, 1999-02-06)

Jópe!: interj. Jope!, desadostasuna edo harridura azaltzeko./ Jope! Jope!⁸⁸ (JBA, 2005-12-24)

Jornál, jornála: iz. Soldata./ Bi jornal. Bi soldata. (JUA, 2001-11-17)/ *Jornal txikie etako zien baiño...* Soldata txikia aterako zitean baina... (JUA, 2002-01-19)/ *Jornal txi-*

kik. Soldata txikiak. (Lehenago, ardoaz gaur baino garestiagoa zen garaiak soldataz alderatuz) (JUA, 2000-10-14)

Jorra, jórrea: iz. Nek. Jorra./ Gari jorra. Gari jorra. (JUA, 1999-02-06)/ *Jorra-jorra inda ipiniko ttut*. Jorra-jorra eginda ipiniko ditut. (JBA, 2000-06-06)/ *Bos laun ai zien artajorran*. Bost lagun ari ziren artajorran. (JUA, 2002-04-13)/ *In det artajorra saille*. Egin dut artajorra saila. (JBA, 2002-06-22)/ *Nik in dituan artajorrak*. Nik egin ditudan artajorrak. (JBA, 2006-06-09)

Jorraie, jorraie: iz. Tre. Jorraie, jorratzeko erabili ohi den aitzur oso txikia./ *Jorraie*. Jorraie. (JBA, 2002-03-02)

- Grab. **Jorraie (1)**: "Jorraie da atxur txiki oitakoa, bai... Ta geo landaratzok sartu're bai-ta, baatzan-da, txiki, txiki, txikik..." (JBA, 2002-03-02)



► JORRAIE. Haitzur txikia izaten da jorraie. (Maria Jesus Ugalde, 2008)

⁸⁸ Hitz honen adiera hau jaso dugu. Zegama aldean berriz, badu beste bat, **jope egitea** ihes egitea da. (Anjel Irigoras, 2005-03-22)/ JBA-k ez zuen ezagutzen beste adiera hau.

JORRATZEKO

► *Grab. Jorraie (2): "Jorraie ba al dakik zer dan? Atxur ttiki, ttiki, ttikie... Ola luxe antzekoa, aoa luxe antzekoa dona... Ura garie jorrau ta gari tarten... Zea kendu ta jorraie... Urdungo ibillerak olaxe zittuan-da. Patrizionen tutuik etzon jotzen garai baten, al dan bezela ibili bear... Tutue, tutue ai zanen orik gutxitu zittuan."* (JUA, 2002-03-02)

► *Grab. Jorraie (3): "Jorraie ba atxur txikie, askotan ba, landarak-eta ugari daenen, jotzen... Atxur aundikin ezin leike eiñ eta ordum ba atxur txikiñ, jorraiekiñ, ba askoz obeto itten die. Kirtena 're motxagoa eukitzen do, esku batekin 'e eitten da. Da gari jorraan 'e ebaltzen gendun ura gainea, gari jorran 'e. Nola tarte gutxi eukitzen don gariik... ikusi zu garie? Ba ola, tarte gutxi daon lekum eitten dan... Jorraie ortako ebalu (...). Gero ba, zeak sartzeko 're bai, oso ondo etortzen da, landaraxok sartzeko 're, prepara-prepara einda balin badao, an ttaka-ttaka, jorrai txikiñ"* (JBA, 2003-03-21)

Jorrátzeko atxúr, jorrátzeko atxúrre: *iz. Tre.* Jorratzeko aitzurra./ Jorran aitzeko balio duen haitzurra (ez da jorraia, haitzur arruntan tamaina du-eta)/ *Jorratzeko atxurre.* Jorratzeko aitzurra. (JBA, 2003-07-13)

Jórrau: *ad. Nekaz.* Jorratu./ *Jorrau.* Jorratu. (JBA, 1998-08-04)/ *Kipulak jorratzeko.* Tipulak jorratzeko. (JBA, 2004-05-20)/ Jorratzea zera da: *atxurrekiñ bedarrak kendu ta gozau landaren ondo.* Patataren kasuan lurra bildu ere egiten da. (JBA, 2009-01-21)

Jósi: *I. ad.* Josi, oihala josi./ *Josiko iñat ori.* Josiko dinat hori. (JBA, 2000-10-21)/ *Josten.* Josten. (JBA, 2004-04-17)/ *Josten-da itteko.* Josten-eta egiteko. (JUA, 2004-08-29)/ *Josi.* Josi. (JBA, 2005-02-19)/ *2. ad.* Hiltzez lotu./ *Teillatuko egurre josten.* Teillatuko egurra josten. (JBA, 2002-08-25)/ *Josteko.* Josteko. (Iltzeen bidez, sarea eta hesola lotzeaz ari da) (JBA, 2001-04-28)/ *Entenga direlako iltze handiekin egurra josi egiten da.* (JBA, 2002-08-25)/ *3. ad.* Josi,



► **JOSTO-ZAREA.** Jostozarea bere osagarriekin. (AA, 2005-06-04)

gainezka egon, ugari izan./ *Dana kandelaz josita.* Dena kandelaz josita. (Izotzaldietako kandela ugaritasunaz) (JUA, 2000-02-16)

Joskúra, joskúrea: *iz. Jostura./ Joskurea eiñ.* Jostura egin. (Arropetan) (JBA, 1998-12-19)/ *Joskura pasau.* Jostura pasatu. (Lehen jositakoa makinaz erreparatzearan gainean) (JBA, 2007-09-29)

Jostó-zare, jostó-zarea: *iz. Tre.* Josteko gauzak (hariak, orratzak) gordetzeko erabiltzen den saski txikia./ *Josto-zarea.* Josto zarea. (JBA, 1998-03-19)/ *Jostotzárán...* *jostotzára.* Josto zarean... josto zarea. (JBA, 2004-02-29) (aldea **Jostotzara**)

Jostórratz, jostórratza: *iz. Tre.* Jostorratza./ *Jostorratza.* Jostorratza. (JBA, 1999-06-05)

Jostótzara, jostótzarea: (ik. **Josto-zare**)

Jostún, jostúne: *iz. Jostuna./ Jostun talde au.* Jostun talde hau. (JBA, 2006-09-23)

Joxemaiñe: Joxemarinea, Brinkolako taberna./ *Joxemaiñe.* Joxemarinea. (JBA)

Joxépa-errota: Joxepa errota./ *Joxepa-errota.* Joxepa errota. (JUA, 2001-12-31)/ Emakume hau *Elórriko errotakoa* zan eta bera arduratzen zen errota lanaz. (JBA, 2009-01-22)

Juanáztei: *Topo.* Juanaztegi, Legazpiko baserria./ *Juanaztei.* Juanaztegi. (JBA, 2004-11-28)

Jubilau: *ad.* Jubilatu./ *Jubilau.* Jubilatu. (JUA, 2002-03-02) (sinonimoa **Lizentziau**)

Jubilazio, jubilazioa: *iz.* Jubilazioa, erretiroa./ *Jubilazioa.* Jubilazioa. (JUA, 2004-04-10)/ *Jubilazioa.* Jubilazioa. (JBA, 2008-05-31)

Jun: *I. ad.* Joan./ *Euzkie jun ezkeo.* Eguzkia joan ezker. (Eguzkiaren sarrera aipatuz) (JUA, 1998-12-22)/ *Jun bear dek?* Joan behar duk? (JUA, 1999-05-15)/ *Junatio.* Joanagatik. (JBA, 1999-10-30)/ *Junda die.* Joanak dira. (JBA, 1998-11-14)/ *Oia junez.* Ohera joanaz. (JBA, 2000-10-14)/ *Noa junik ez.* Nora joanik ez. (JUA, 1999-05-15)/ *Antzuola junik izango a.* Antzuolara joanik izango da. (JUA, 2000-10-21)/ *Jute men ituan.* Joaten omen zituan. (JUA, 1999-05-15)/ *Aierdikoa jutezkeoz.* Aierdikora joate ezker. (JUA)/ *Jun da artu!* Joan eta hartu! (JBA, 1999-08-07)/ *Jun itteko esan gendunan.* Joan egiteko esan gendunan. (JBA, 2000-10-28)/ *Ez ga junik izango.* Ez gara joanik izango. (JBA, 2008-05-17)/ *2. ad.* Joan, hil adieran esana./ *Jun zan.* Joan zen. (JBA, 2004-01-03) (sinonimoa **II**)

JUN DAN: Joan den, denboraz mintzatzean erabiltzen da./ *Jun dan bi eun oitako baten.* Joan den bi egun horietako batean. (JBA, 1998-11-07)/ *Jun daneko bost urtean.* Joan deneko bost urteetan. (Azken bost urteen gainean esana) (JBA, 1999-12-04)/ *Jun dan aldiñ ez.* Joan den aldiñ ez. (JUA, 1999-02-10)/ *Jun dan emetan.* Joan den egunetan. (JBA, 1999-02-10)/ *Jun dan urten.* Joan den urtean. (Ihaz) (JUA, 1999-



► **JUNGUREA.** Segak pikatzeko ingudea. (AA, 2008-03-15)

02-12)/ *Jun daneko gauetan.* Joan deneko gauetan. (JUA, 2003-03-01)/ *Jun daneko aspalditxon.* Joan deneko aspalditxonan. (JBA, 2005-02-26)

MENDIN BERA JUN: *ad.* Mendian behera joan, amildu./ *Mendin bera jun zan.* Mendian behera joan zen. (Amildu egin zela adierazteko) (JUA, 1999-05-21)

• *Emog. Esaera: Jundakoa junda izaten da.* Joandakoa joanda izaten da. (Gauza edo egoera batzuk ez direla errepikatzen adieraziz) (JBA, 2005-05-07)

Jun, júne: *iz.* Joana./ *Beste jun bat ingo deu.* Beste joan bat egingo dugu. (JBA, 2004-11-14) (sinonimoa **Junaldi**)

Junáldi, junáldie: *iz.* Joanaldia./ *Bi junaldi.* Bi joanaldi. (Zenbait aldiz joan zen adieraziz) (JUA, 2000-02-24) (sinonimoa **Jun** izena)

Jungúra, jungúrea: *iz. Tre.* Ingudea./ *Jungurea.* Ingudea. (JUA)/ *Olazarreko jungurea* egurrezko eserleku txiki eta luzexka baten erakoa da, lau hanka txikitari oinarritua. Bere alde batean, burdinazko egitura tinko bat du. Segaren ahoa bertan ezartzen da, eta mailuaz joz, sortu zaizkion gorabehera denak konpontzen dira.⁸⁹ (JUA, 1996) (•)

Juntaizío, juntaizíoa: (ik. **Juntazio**)

Júntau: *ad.* Elkartu./ (sinonimoa **Unittu**)

JUNTATZEA IÑ: *ad.* Juntatzera egin, bildu./ *Txikik ola juntatzea iñ ezkeo.* Txikiak horrela biltzera egin ezker. (Patata bilketan esana) (JBA, 2000-07-22)

Juntazio, juntazioa: *iz.* Bilkura, elkartzea./ *Juntazio baten.* Bilkura batetan. (Lagun bilkura edo elkartze baten gainean) (JBA, 2000-05-06)/ *Juntaizíoa.* Bilkura. (JBA, 2004-05-01)/ *Juntazio bat.* Elkartze bat. (JBA, 2008-03-01)/ *Lenengo juntaziok.* Lehenengo elkartzea. (JBA, 2008-08-13) (aldea **Juntaizío**)

Júnto: *adb.* Gertu./ *Juntogi.* Gertuegi. (Pinu batzuen gainean) (JBA, 2004-05-22)

⁸⁹ Gaur egunera arte ezagutu dut JUA **jungurea** erabiltzen lan honetarako. Atarian burutzen du lan hau, eta mailuaz sega jotzerakoan ateratako hots sarkorrak oihartzuna du. (1997)

Juntúra, juntúrea: *iz.* Juntura./ Behatzeko *junturan*, goreneko junturan ebaki bat egin du, eta toki honetan izanda, zailagoa da sendatzea. (JBA, 2005-02-04)

JUNTURATAKO MIÑE: *iz.* Junturetako mina,

ukalondo giharretan-eta izaten den mina./ *Junturatako miñe*. Junturetako mina. (Gripearen eraginez mindu daitezke) (JBA, 2005-01-14)

Jústo: Justo, gizon izena./ Justo-Euzkitza. Justo-Eguzkitza. (JUA, 2001-12-31)

Júxtu-júxtu: *adb.* Justu-justu, ia-ia./ *Juxtu-juxtu-juxtun akordatzen naiz*. Justu-justu-justuan gogoratzen naiz. (MUA, 2003-10-10)